

TOKI ERAKUNDEEI
BIODIBERTSITATEAREN
GARAPEN IRAUNKORRERAKO
EMANDAKO DIRULAGUNTZEN
AZTERKETA ETA EBALUAZIOA

2012-2019

2022



EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

Ingurune naturala

TOKI ERAKUNDEEI BIODIBERTSITATEAREN GARAPEN IRAUNKORRERAKO EMANDAKO DIRULAGUNTZEN AZTERKETA ETA EBALUAZIOA 2012-2019

2022

Data 2022ko urria

Egileak **Lanaren zuzendaritza eta azken idazketa:**

Natura Ondare eta Klima Aldaketa Zuzendaritza. Ekonomiaren Garapen,
Iraunkortasun eta Ingurumen Saila. Eusko Jaurlaritza

Lan teknikoak:



Azaleko argazkia

CC BY-3.0-ES 2012/EJ-GV/Irekia-Gobierno Vasco/Mikel Arrazola

Jabea

Eusko Jaurlaritza.



 **euskadi.eus**

www.euskadi.eus/natura

Edukia

1	SARRERA ETA AURREKARIAK.....	1
2	METODOLOGIA	2
2.1	PROIEKTUEN SAILKAPENA	2
2.2	DATU-BASEA	4
2.2.1	Egitura.....	4
2.2.2	Aukeratutako eremuak	4
2.3	LANDA-LANA	5
2.3.1	Elkarrizketak	5
2.3.2	Landa-lana, zentzu hertsian.....	5
2.4	EBALUAZIO-METODOLOGIA	5
2.4.1	Proiektuaren ondoriozko onura(k).....	6
2.4.2	Kontserbazio-elementuak.....	6
2.4.3	Jarduketa motak.....	8
2.5	GERTAKARIAK ETA BEHAKETAK.....	11
3	EMAITZEN AZTERKETA.....	11
3.1	Luzatutako proiektuak	22
3.2	Ondorioak.....	25
4	HOBETZEKO PROPOSAMENAK	25
4.1	Diruz lagundu daitezkeen ekintzen eta gastuen definizioa eta deskribapena hobetu eta/edo doitzeko proposamenak	25
4.2	Proiektuak baloratzeko eta esleitzeko irizpideen definizioa hobetu eta/edo doitzeko proposamenak	26
4.3	Eskabide-fasean zein lanak justifikatzeko fasean aurkeztu beharreko dokumentazioaren definizioa hobetzeko eta/edo doitzeko proposamenak	27
4.4	Bestelakoak.....	28
5	I. ERANSKINA - DATU-BASEAREN EDUKIAK.....	29
6	II. ERANSKINA - ELKARRIZKETAREN AKTAREN EREDUA	33
7	III. ERANSKINA - LANDAKO BISITAREN AKTAREN EREDUA.....	34

1 SARRERA ETA AURREKARIAK

Habitaten eta Hegaztien Zuzentzarauak, bai eta horiek Estatuko eta autonomia-erkidegoko ordenamendu juridikoan txertatzeko arau-tresnak, Euskadin biodibertsitatea kontserbatzeko erraminta europar nagusienak dira gaur egun. Testuinguru honetan, helburu espezifikoagoak ezarri dira, hala nola: funtsezko prozesu ekologikoek behar bezala funtzionatzen dutela ziurtatzea, dibertsitate biologikoa eta geologikoa kontserbatzea eta lehengoratztea, ekosistema naturalak kontserbazio-egoera onean zaintzea, eta baliabideak natura-ondarearen aprobetxamendu iraunkorra bermatzeko erabiltzea, besteak beste. Horrela, biodibertsitatea funtsezko elementutzat ulertzen da Europako Gune Babestuen Natura 2000 Sare Ekologikoa sortzeko. Sare hori 55 gune osatzen dute Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE), eta haren kontserbazio- eta kudeaketa-tresnak 2012 eta 2016 artean onartu ziren.

Tresna horiek eremu horietako bakoitzean dauden Batasunaren intereseko habitat eta espezie moten kontserbazio-egoera egokia mantentzeko edo lortzeko neurriak zehazten dituzte. Neurri horiek aldizka ebaluatu behar dira (6 urte), Habitaten Zuzentzarauaren 17. artikuluan ezarritakoaren arabera. Ebaluazio hori Europako Batzordearen eta Europar Batasuneko estatu kideen artean adostutako metodologia jarraituz egiten da, eta, horrela, 2030era arte onartu berri den “Biodibertsitatearen Europako Estrategia” eta “2030erako Euskadiko Biodibertsitate-Estrategia” betetzen dira. Estrategia horren konpromisoetako batzuk honako hauek dira: i) babestutako espazio guztiak eraginkortasunez kudeatzea, ii) kontserbazio-neurri eta -helburu argiak definitzea eta iii) azken horien jarraipen egokia egitea.

Araudi hori betetzen laguntzeko, eta Euskadiko natura-ondarea kontserbatzeko esparru estrategikoaren barruan, Eusko Jaurlaritzak 10 urte baino gehiago darama toki-erakundeentzako dirulaguntza programa bat antolatzen. Urtero argitaratzen diren laguntza hauek bost jarduera-ildo dituzte, eta horien artean EAEko aniztasun biologikoa eta geologikoa kontserbatzea, leheneratzea edo hobetzea sustatzen duten ekintzak azaltzen dira. Ekintza horien artean, honako hauek onartzen dira:

- Batasunaren edo eskualdearen intereseko habitat naturalen leheneratzea, hobetzea edo kudeatzea. Flora exotiko inbaditzaileen erauzketa ere onartzen du programa honek, habitat naturalen lehengoratztea sustatzeko jarduerekin batera egiten bada soilik.
- Erkidego- edo eskualde-mailan mehatxupean dauden basa-flora eta -faunako espezieak babestea eta kontserbatzea, baldin eta espezie horiek 92/43/EEE, 2009/147/EE Zuzentzarauan, Espezie Mehatxatuen Espainiako Katalogoan edo Espezie Mehatxatuen EAEko Katalogoan jasota badaude (“Galtzeko Arriskuan” edo “Arriskuan” kategorien barne daudenak).
- Lurraldearen konektibitate ekologikoan eta azpiegitura berdearen sustapenean zuzenean laguntzen duten jarduerak.
- Tokiko aukera-eremuak indartzea, non biodibertsitatea sustatzeko ingurumenaren aldetik degradatuta dauden eremuak lehengoratztea aurreikusten den.
- Toki-erakundearen lurralde-eremuan dauden Interes Geologikoko Guneak babesteko, kontserbatzeko eta monitorizatzekeo jarduerak, eta/edo hauek balioan jartzea beren erabilera hezitzailea eta turistikoa ustiatzeko.



- Ibaiertzetako eta ibilguetako hondakinak garbitzeko jarduerak, betiere Uraren Euskal Agentziarekin (URA) lankidetzan egiten badira.

Kontuan hartuta diruz lagundutako proiektuen ekarpena garrantzitsua dela Natura 2000 Sarean ezarritako helburuak betetzeko, bai eta Batasunaren eta eskualdearen intereseko elementuak (habitatak eta espezieak) kontserbatzeko ere, beharrezkotzat jotzen da EAEn 2012tik 2019ra bitartean diruz lagundutako eta gauzatutako 162 proiektuek egindako ekarpena aztertzea eta ebaluatzea. Era berean, eta gauzatutako ekintzen jarraipenaren eraginkortasuna hobetzeko, beharrezkoa da Natura Ondare eta Klima Aldaketa Zuzendaritzak Natura 2000 Sareko neurrietarako garatutako tresna erreferentzia gisa hartzea.

2 METODOLOGIA

2.1 PROIEKTUEN SAILKAPENA

Dokumentazio guztia antolatu ostean, hurrengo urratsa proiektuak sailkatu ahal izateko kategoriatzuk zehaztea izan da, zeinek ez duten kontuan izan non edo noiz gauzatu diren proiektu horiek. Horretarako, proiektuen ezaugarri orokorrak zehaztu ziren, ondoren antzeko gaien edo edukien arabera sailkapen bat proposatzeko. Horrela, bukaerako datu-basea erabiltzen den bitartean a) proiektu bakoitzaren oinarriko informazioa ezagutu daiteke datu hau kontsultatuz eta b) kategoriat berdineko proiektuak alderatu daitezke, kategoriat bakoitzean proiektu eraginkorrenen funtsezko ezaugarriak identifikatu ahal izateko. Kontserbazio-elementua eta proiektuan egindako jardueren motaren arabera, honako kategoriat hauek ezarri ziren:

- **Habitaten berreskurapena: basoak.** Baso-jarduerak egiten dituzten proiektuak, hildako egurra gehitzeko, soilguneak irekitzeko, basoberritzeak egiteko eta flora exotiko inbaditzailea erauzteko.
- **Habitaten berreskurapena: sastrakadiak.** Espezie lehiakorrek (iratzeak eta sasiak, esaterako) modu selektiboan kentzeko jarduerak gauzatzen dituzten proiektuak, habitat horretako espezie tipikoen edo larre-sastraka mosaikoaren mesedetan. Kategoriat honetan sartzen diren beste ekintza batzuk: hesiak eraikitzea, birpopulaketak, flora inbaditzailearen erauzketa, eta sastrakadientzat onuragarriak izan daitezkeen bestelako jarduerak.
- **Habitaten berreskurapena: larreak.** Batez ere azienda kudeatzearekin zerikusia duten jarduerak egiten dituzten proiektuak (sarbideak kontrolatzea, askak eraikitzea). Horrez gain, abereen sarrera errazteko belar-sastrakak modu selektiboan kentzeko proiektuak ere sailkatzen dira hemen.
- **Habitaten berreskurapena: hezeguneak.** Zohikaztegiak eta beste hezegune degradatu batzuk lehengoratzeko jarduerak kontuan hartzen dituzten proiektuak; batik bat, ganaduaren eta fauna basatiaren sarbide-kontrola, ura atxikitzeko eraikuntza-dikeak eraikitzea eta flora exotiko inbaditzailearen erauzketa, ingurune horietako espezie bitxiei laguntzeko.
- **Habitaten berreskurapena: kobak.** Habitat mota hauek egoera onean mantentzeko proiektuak, bertan bizi diren kiropteroen eta bestelako faunaren komunitatearen mesedetan; sarbideak kontrolatzea, batez ere.

- **Habitaten berreskurapena: hainbat motakoak.** Lehen deskribatutako bi habitat mota edo gehiago lehengoratzeko proiektuak.
- **Hiri-inguruneetako habitatak berreskuratzea.** Intereseko habitat-motak lehengoratzeko proiektuak, baina, aurrekoak ez bezala, hiri-inguruneetan daudenak.
- **Espezieen kontserbazioa.** Faunarentzako babeslekuen eskaintza hobetzera, populazioak indartzera (biztanleriaren eta/edo banaketa-eremuaren tamaina handitzea), ex situ kontserbatzera eta jarduketa horien jarraipenerako azterlan eta inbentarioetara bideratutako proiektuak.
- **Flora exotiko inbaditzaileen erauzketa.** Espezie hauek desagerrarazteko proiektuak, ingurunean beste garbiketa-lan batzuk egiten diren bitartean, hauen ondoren espezie autoktonorik landatu gabe.
- **Azpiegitura sortu/hobetu.** Tamaina txikiko edo handiko obrak dira, zerbitzuren bat hobetzeko edo inpakturen bat zuzentzeko (adibidez, sarbide-ibi bat) eta, azkenik, natura-inguruneari laguntzeko helburuarekin gauzatzen direnak.
- **Urmaelen sorrera.** Putzuak eta/edo askak sortzeko/lehengoratzeko proiektuak, bai eta hauen ingurunea kudeatzeko proiektuak ere, batez ere ur-inguruneei lotutako herpetofauna eta entomofauna lehengoratzeko.
- **Bioingeniaritza.** Ezpondak egonkortzeko jarduketak egingo dituzten proiektuak batez ere lur-jausiak saihesteko, modu honetan eremuaren habitaten segurtasuna eta baldintzak hobetzeko.
- **Lorategi botanikoa.** Lorezaintza iraunkorreko eta azpiegitura hobetzeko proiektuak dira nagusiki, parkeak eta hiri-lorategiak naturalizatzeko ahaleginean. Lorategi botanikoa. Proiektua hauekin inguruneke konektibitate ekologikoa hobetu badaiteke ere, proiektua hezkuntza-elementu soil gisa justifikatzen da, eta ez da kontuan hartzen biodibertsitatearako izan ditzakeen onuren neurketa. Kudeaketa-planak/lan-protokoloak. Proiektu teoriko hutsak egitea, aplikatu ondoren biodibertsitateari onura ekar diezaioketenak.
- **Ibaien garbiketa.** Ibai, erribera eta ubideetako hondakin solidoak eta landaredia garbitzeko proiektuak.
- **Geokontserbazio-lanak.** Natura-ondare geologikoa kontserbatzeko proiektuak.

Proiektu batzuei sailkapen bikoitza eman zaie, antzeko garrantzia duten bi helburu dituzten jarduerak definitu direlako.

Sailkapena egiteko aipatutako motibazioez gain, esan beharra dago ebaluatuko ziren proiektuak aukeratzeko ere balio izan duela, betiere biodibertsitateari egindako ekarpena kontuan hartuta. Ebaluatu gabeko kategoriak honako hauek izan dira:

- **Geokontserbazio-lanak:** proiektu honen helburua biodibertsitateari egindako ekarpena ebaluatzea delako, ondare geologikoa barne hartu gabe.
- **Ibaien garbiketa:** ebaluaziotik kanpo geratzen dira, biodibertsitateari ekarpen txikia egingo diotela aurreikusten baitzen, hiri-hondakin solidoak garbitzeko baino ez baitira aurkezten. Hala ere, kategoria honetako proiektuak ebaluatu egin dira hondakinak biltzea ez ezik, ibaiertzetako eta ubideetako landaredi autoktonoa ere erauzi denean, ingurumenean honelako jarduketak duten inpaktu negatiboa ezagutzeko nahian. Horrez gain, kategoria honen jarduketak flora exotiko inbaditzaileen erauzketaekin batera egin denean ere ebaluatu dira halako proiektuak.

- **Kudeaketa-planak/lan-protokoloak:** ez dira ebaluatu, kudeaketa-dokumentuak edo lan-protokoloak idatzi direlako soilik, baina ez dira bestelako jarduketarik gauzatu; beraz, ez dute biodibertsitaterako onura handirik ekarri. Hala ere, Natura 2000 guneak kontserbatzeko eta kudeatzeko tresnetan oinarritutako kudeaketa-planak bai ebaluatu dira.
- **Fauna inbaditzailearen erauzketa:** fauna exotiko inbaditzailea edo inbaditzailea izateko gaitasuna duten espezieak desagerrarazteko proiektuak dira, betiere espezie autoktonoen mesedetan.

2.2 DATU-BASEA

Txosten honekin datu-base bat entregatzen da Excel formatuan, proiektu bakoitzari buruzko informazio garrantzitsua eta haren ebaluaziorako emandako urrats guztiak kontsultatzeko.

2.2.1 Egitura

Proiektu kopurua eta hauen analisirako erabilitako informazio-bolumena dela eta, garrantzitsua zen datuak behar bezala antolatzea, ahalik eta egitura errazena aukeratuz. Honako hauek dira, beraz, datu-basearen atalak:

- Irizpideen aurkibidea: datu-baseko elementu guztien deskribapen laburra. I. ERANSKINEAN (Datu-basearen edukiak) kontsulta daitezkeen definizio berberak dira.
- Sinboloen eta koloreen aurkibidea: datu-basearen elementu edo proiektu batzuei lotutako koloreen azalpena, baita gelaxka jakin batzuetan irizpide batzuetarako erabilitako sinboloen esanahiarena ere.
- Datu orokorrak (orrialde bat lurralde historiko bakoitzeko): proiektu bakoitzaren oinarritzko harreman-informazioa eta informazio ekonomikoa. Ebaluazio-proiektu honetan garatutako faseen erregistroa ere gehitzen da hemen: erakunde sustatzailearekin izandako elkarrizketa, landa-bisita, kartografia digitalaren garapena eta Natura 2000 neurrien tresnan kargatu den edo ez.
- Proiektuak (orrialde bat lurralde historiko bakoitzeko): lurralde horretako proiektuen ebaluazioa, ebaluaziorako ezarritako irizpide guztiak betez, prozesu osoa jarraitu ahal izateko, azken emaitza lortu arte.
- Luzatutako proiektuak (orrialde bat lurralde historiko bakoitzeko): txosten hau entregatutako datan oraindik amaitu ez diren proiektuen ebaluazioa. Ebaluazioa teorikoki proiektu honek ekarriko lukeen onuraren arabera egin da, nahiz eta ebaluazio-irizpide batzuk ezin izan diren kontuan hartu.
- Ebaluatu gabeak (orrialde bat lurralde historiko bakoitzeko): ebaluazioa jasan ez duten proiektuen zerrenda eta zergatiak.

2.2.2 Aukeratutako eremuak

Datu-baseko eremuak behar bezain deskriptiboak dira proiektu bakoitza irakurketa azkar batean ezagutzeko eta ebaluazio-prozesua jarraitu ahal izateko, dagozkien gelaxketan txosten honen 2.4 atalean deskribatzen diren puntuazioak gehitzen baitira. Eremu edo atal bakoitzaren definizioa I. ERANSKINEAN kontsultatu daiteke (Datu-basearen edukiak).

2.3 LANDA-LANA

2.3.1 Elkarrizketak

Elkarrizketak lurralde historikoaren arabera antolatu ziren. Aipatzekoak dira elkarrizketa hauek hitzartzean maiz gertatu diren gorabeherak, batez ere kontaktu-datuak deseguneratuak zeudelako, bere garaian proiektuen buru izan ziren pertsonak jada lan egiteari utzi diotelako, eta abar.

Elkarrizketa hastean, zehatz-mehatz azaldu da lan hau zertan datzan, eta elkarrizketa-aktan adierazitako atalei buruzko informazioa lortu da (II. ERANSKINA). Une horretan, gainera, falta zen edozein informazioa eskatzeko aprobetxatzen zen, hala nola justifikazio-memoriak, garatutako lanen kokapen zehatza edo proiektuari buruzko ezagutza handiagoa eskaini zezaketen dokumentuak (adibidez, gauzatutako jardueren kartografia digitala).

Gainera, kasu batzuetan, jarduketa-eremurako irisgarritasunari buruzko informazioa eskatzen zen: bertara iristea erraza zen eta proiektua ezagutzen zuen Udaleko teknikaririk gurekin etorriko ote zen jakiteko.

2.3.2 Landa-lana, zentzu hertsian

Elkarrizketen ondoren, non jarduketan kokapen zehatzak eta bestelako informazio garrantzitsua baieztatzen zen, landa-bisitak antolatu ziren. Horretarako, honako urrats hauek jarraitu ziren proiektu bakoitzeko:

1. Jarduketa-eremuaren kokapen zehatza GIS aplikazioen bidez aztertu, sarbideak eta bisitadentzora aurreikusteko, egun batean bisita bat baino gehiago egiten saiatuz.
2. Lan-eremura eraman beharreko dokumentazioa prestatzea:
 - a. Jardueren laburpena, interes handieneko jardueretan eta elementu bereizgarrietan arreta berezia jarritz, bai eta informazio osagarri interesgarria ere: Udalaren teknikariarekin harremanetan jartzeko datuak, baimenen beharra, arduradunaren sarbide-aholkuak, etab.
 - b. Landa-lanaren akta (III. ERANSKINA), ahal den heinean informazio garrantzitsuena jasotzeko.
 - c. Ortoargazkiak, lan-eremuaren gutxi gora-beherako mugaketarekin, halako informazioa izanez gero. Plano horien gainean zuzenketak egin dira, baldin eta erakunde sustatzaileak emandako kokalekuak edo mugaketak ez bazetozen *in situ* egiaztatutakoarekin bat.
3. Landa-irteera, haien artean hurbilen zeuden proiektuak taldekatzen saiatuz.
4. Mendi-lanean lortutako informazioa antolatzea, akta modu zehatzago batean betez eta txostenarekin batera joango liratekeen argazki egokienak hautatuz.
5. Jarduketak berretsi eta mugatu ondoren, kartografia digitala sortu edo zuzendu zen.

2.4 EBALUAZIO-METODOLOGIA

Jarduera batek biodibertsitatearako dakarren onura zehaztea ez da erraza, espezieen eta habitaten kontserbazio-egoeran eragina duten faktore-kopurua handia baita. Lan honetan garatu beharreko ebaluaziorako zeuden hainbat aukera aztertu ondoren, proiektu guztiei irizpide komun batzuk aplikatzean oinarritutako metodologia bat ezartzea erabaki da, eta, horrela, EAEko biodibertsitateari egindako ekarpenen gradiente bat lortu da. Puntuazio txikiagoko proiektuek biodibertsitateari ekarpen gutxi egin diotela ulertzen da, eta puntuazio altuko proiektuek, aldiz, diru-laguntza hauek aurreikusten dituzten helburuak lortzeko ibilbide-orri egokia adierazten dutela interpretatzen da.

Biodibertsitatea hobetzeko helburua duten proiektuen ekarpena ebaluatzeko metodologia definitu ahal izateko, honako dokumentu, txosten edo tresna hauek kontsultatu dira:

- Naturaren Egoera Euskadin. EBko Hegaztien eta Habitaten Zuzentzarauen eta geodibertsitateari buruzko txostena. 2013-2018 (Eusko Jaurlaritzak, 2020). Batasunaren eta eskualdearen intereseko habitaten eta espezieen kontserbazio-egoera kontsultatzeko erreferentziako dokumentu nagusia.
- Hegaztien, hegaztiak ez diren espezieen eta habitaten kontserbazio-egoera ebaluatzeko gida azkarrak (Eusko Jaurlaritzak, 2022) <https://www.euskadi.eus/informazioa/nola-bidali-informazioa-euskadiko-naturari-buruzko-informazio-sisteman-sartzeko/web01-a2ingdib/eu/>
- Euskadiko Naturari buruzko Informazio Sistema (SINE).
- EAEko Natura 2000 guneak kontserbatzeko eta kudeatzeko tresnak.
- Euskadiko Natura 2000 neurrien tresna.
- Natura 2000 Sarea finantzatzeko lehentasunezko ekintza-esparrua, 2021-2027 aldiko urte antzeko finantza-esparrurako. (Eusko Jaurlaritzak, 2019)

Jarraian, kontuan hartutako irizpideen zerrenda egin da. Irizpide horiek proiektuen datu-base orokorrean jasotako oinarritzko informazioaren parte dira. Era berean, jarraian, irizpide bakoitzaren garrantzia azaltzen da, eta hori modu eskematikoagoan jasotzen da IV. ERANSKINEAN, bertan azaltzen diren balorazio-tauletan.

Hauek dira balorazio-irizpideak:

2.4.1 Proiektuaren ondoriozko onura(k)

Irizpide hau oinarritzotzat jotzen da gauzatutako proiektuek Euskal Autonomia Erkidegoko biodibertsitatean egindako ekarpena definitzerakoan. Beraz, lehenik eta behin proiektua bakoitza gauzatu zen unean hauek biodibertsitatearen kontserbazioan eragina izan zuten ala ez baloratu zen, eta, ondoren, identifikatutako onurak gaur egun ere badira. Galdera hauei emandako erantzuna negatiboa izatekotan, biodibertsitatea kontserbatzeko ekarpenik ez dagoela ondorioztatu da, eta, horregatik, proiektu horiek ebaluaziotik kanpo geratu dira.

Irizpide honi dagokionez, argitu behar da oraindik onurarik izan ez duten proiektuetan (proiektu luzatuen kasuan) biodibertsitateari egin dakioken ekarpen potentziala baloratu zela. Horregatik, irizpide hau ez da aplikatu kasu horietan, eta proiektua gainerako irizpideen bidez baloratu da.

2.4.2 Kontserbazio-elementuak

Kontuan hartu beharreko irizpiderik garrantzitsuena da; izan ere, elementu horiengan garatutako jarduerak funtsezkoak dira beren kontserbazio-egoera hobetzeko. **Horrela, Euskadiko biodibertsitatea mantentzeko duten garrantzia kontuan hartuta, honako elementu hauek kontserbatzea justifikatu zuten proiektuak baloratu ziren: Batasunaren eta Eskualdearen intereseko habitatak, Espezie Mehatxatuen Euskadiko Katalogoan (EMEK) Arriskuan eta Kaltebera gisa katalogatutako espezieak, eta Habitaten Zuzentzarauen II. eta IV. eranskinetan eta Hegaztien Zuzentzarauen I. eranskinean jasotako espezieak.** Baldintza horiek betetzen ez dituzten elementuen gainean jardun zuten proiektuek 0 puntu jaso zituzten atal honetan, baina datu-basean jaso ziren hala ere, hurrengo irizpideen arabera ebaluatu baitziren.

A. Habitatak

6

Proiektuek biodibertsitateari egiten dioten ekarpena ebaluatzean, "Habitatak" elementuari pisu handiagoa eman zaio, ekosisteman betetzen dituzten funtzioak direla eta.

Habitat bakoitzak EAEn duen errepresentazioa eta kontserbazio-egoera hartu dira kontuan, eta, beraz, hauen arabera interbentzio-beharra baloratu da. Hori guztia honako balorazio honen arabera:

- i. EAeko habitataren kontserbazio-egoera orokorra, "Naturaren egoera Euskadin. 2013-2018" (Eusko Jaurlaritzak, 2020) dokumentua erreferentziatzen hartuta:
 1. Aldekoa (8 puntu)
 2. Desegokia - Kontrakoa (15 puntu)
 3. Kontrakoa-Txarra (20 puntu)
 4. Ezezaguna (10 puntu)
- ii. Habitataren EAEn duen azalera osoa: oro har, kontserbazio-egoera bereko bi habitaten aurrean, azalera txikiagoko habitataren balio handiagoa izatea pentsatu zen; izan ere, haren degradazioak ingurumenean eragingo lukeen inpaktua handiagoa izango litzateke lurraldean azalera handiagoan aurkitzen den habitat batena baino. Horrela, Euskadiko Naturari buruzko Informazio Sistemaren (ENIS) argitaratutako habitat bakoitzaren azalerei buruzko informazioetik abiatuta, honako kategoriatan hauek eratu ziren:
 1. < 1.000 ha (10 puntu)
 2. 1.000-10.000 ha (7 puntu)
 3. 10.000-30.000 ha (4 puntu)
 4. >30.000 ha (puntu 1)

B. Espezieak

Proiektuetan kontserbazio-elementutzat argi eta garbi definitutako espezieak ebaluatu ziren, baldin eta jarduketek zuzenean onura ekartzen bazieten. Espezie horietatik, lehentasunezkoak izan ziren aurretik definitutakoak (Espezie Mehatxatuen Euskadiko Katalogoan "Galtzeko Arriskuan" eta "Arriskuan" bezala jasotakoak, eta Habitaten Zuzentzarauaren II. eta IV. eranskinetan eta Hegaztien Zuzentzarauaren I. eranskinean jasotakoak); gainerakoak, berriz, ez ziren hain garrantzitsutzat jo, eta 0 puntuko balorazioa jaso zuten. Hurrengo irizpideak hartu dira kontuan:

- i. Kontserbazio-egoera orokorra (hegaztiak izan ezik), habitataren kontserbazio egoera orokorrerako deskribatutako dokumentua iturri gisa erabiliz:
 1. Aldekoa (4 puntu)
 2. Desegokia - Kontrakoa (8 puntu)
 3. Kontrakoa-Txarra (10 puntu)
 4. Ezezaguna (5 puntu)
- Espeziea EMEK-ko zehaztutako kategorietan bai, baina "Naturaren egoera Euskadin 2013-2018 (Eusko Jaurlaritzak, 2020)" dokumentuan ebaluatuta agertzen ez zenean, honen arabera puntuatu zen:
1. "Kaltebera": 8 puntu.
 2. "Arriskuan" : 10 puntu.
- ii. Populazio-joera (hegaztiak bakarrik), iturri gisa lehen aipatutako dokumentua erabiliz:
 1. Hazkuntza (3 puntu)
 2. Gainbehera (10 puntu)
 3. Egonkorra (4 puntu)
 4. Zalantzakoa (5 puntu)

Jarduketek, oro har, fauna-talde bateko edo batzuetako fauna-espezieei mesede egiten zieten kasuetan, talde bakoitzeko bi ebaluatu ziren gehienez, zehazki, onuradun izateko probabilitate handiena zuten espezieak (ohikoenak) eta, horien artean, kontserbazio-egoera okerrean zeudenak.



Jarduketak espezieko espezifikoak baziren, horiek guztiak ebaluatu ziren, adibidez, espezieen birpopulaketan kasuetan.

Azkenik, adierazi behar da proiektuen justifikazioan espezie espezifikoak definitzen ez baziren edo espezie horiek kontserbazio-interes berezikoak ez baziren, gutxienez fauna-talde onuraduna erregistratu zela.

2.4.3 Jarduketa motak

Ebaluazioa modu antolatua batean egiteko, proiektuen memorietan deskribatutako jarduerak kategoria orokorragoetan sailkatu dira, antzeko jarduerak edo helburu berekoak biltzen dituztenak. Kategoria edo mota horiek nolabaiteko hierarkizazioa jasan zuten, guztiak ez baitiote ekarpen bera egiten biodibertsitatearen kontserbazioari, nahiz eta proiektu bakoitzeko jarduera guztiak helburu bera lortzen lagundu ahal izan duten.

A. Zuzeneko jarduketak

➤ Habitatetarako

- i. Birpopulaketak: berreskuratu nahi den habitateko espezie tipikoen landaketak, normalean baso-monolaborantzak moztu edo flora exotiko inbaditzailea erauzi ondoren. (10 puntu)
- ii. Flora exotiko inbaditzailea erauzi: normalean zuhaixka-espezieak, baina baita zuhaitz-espezieak ere. (4 puntu)
- iii. Egitura hobetzeko baso- eta larre-lanak: sastrakak kentzea, mozketak, soiltzea, enborren eraztunketak, hildako egurra mantentzea, etab. (10 puntu)
- iv. Abereen kudeaketa: hesiak eraikitzea sarbideak mugatzeko, abereen presentziaren kontrola, askak eraiki, etab. (8 puntu)
- v. Hesiak eta bestelako sarbide-mugak beste espezie eta bisitari batzuentzat. (6 puntu)
- vi. Bestelako azpiegitura: sartzeko pasabideak, etab. (2 puntu)
- vii. Hondakinak garbitzea: hiri-hondakin solidoak kentzea, bai ingurune urtarrean, bai ingurune lehortarrean. (puntu 1)
- viii. Bioingeniaritza: ezpondak egonkortzeko eta habitat egokietan urari eusteko. (8 puntu)
- ix. Lorezaintza-lanak: belar-sastrakak kentzeko jarduerak, flora autoktonoaren landaketak, eta abar, hiriko lorategietan edo berdegune oso antropizatuetan. (2 puntu) Landare aloktonoa erabiliz gero, jarduera honek 0 puntu jaso ditu.

➤ Espezieentzat

- i. Birpopulatuak/bersarpenak: espezieak beren habitat natural edo potentzialean landatzea edo askatzea. (5 puntu)
- ii. Espezie exotiko inbaditzaileen erauzketa, mehatxatutako flora eta faunan zuzeneko eragina dutenak. (4 puntu)
- iii. Babeslekuaren eskaintza hobetzea: putzuak sortzea/konpontzea, habia-kaxak jartzea, harri-metaketak eraikitzea, etab. (3 puntu)
- iv. Berroneratzeko hesiak eraikitzea/Sarbideak kontrolatzea, populazio interesgarriak babesteko. (5 puntu)

- V. Hilkortasuna murrizteko azpiegitura: hilkortasuna erabat hiri-azpiegituraren ondorio denean. (4 puntu)

C. Azterlanak eta inbentarioak

- i. Kudeaketa-planak: mota honetako txostenak egiteak eraginkortasun handiagoa bilatzen duen antolaketa bat suposatzen du, bai eta geografikoki eta denboran zehar luzatzen dena ere. Garrantzitsua izan arren (6. atalean baloratu da), dokumentu horrek, zuzeneko jarduketak gauzatu ezean, ez luke inolako onurarik ekarriko kontserbazio-elementuentzat. (3 puntu)
- ii. Inbentarioak eta kartografia: bai jarduketan aurretik egoeraren aurreikuspena egiteko, bai jarduketa horiek hainbat kontserbazio-elementuengan duten eraginkortasunaren jarraipena egiteko ere. (2 puntu)
- iii. Dibulgazio-lanak: liburuxkak, liburuak, diptikoak, txangoak, boluntarioak, etab. Nolabaiteko balioespina dute, gutxienez bada ere, ingurumena herritarrengana hurbiltzeak ingurumena kontserbatzeko nolabaiteko konpromisoa piztuko duela uste baita. Horrek onura batzuk ekar ditzake etorkizunari begira: ingurunearen degradazioa prebenitzea eta berronertze-proiektuetan biztanleriaren parte-hartze aktiboa izatea, batez ere. (puntu 1)

D. Lortutako helburua

Lortutako helburu bakoitzaren balorazioa dagokion elementurako definitu diren kudeaketa-beharren arabera da, bai Euskadiko Naturari buruzko Informazio Sistemari (ENIS), bai proiektuak gauzatu diren espazio babestuaren kudeaketa-dokumentuan, hala badagokio. Dokumentu horiek kontuan hartuta, elementu onuradunaren kontserbazio-egoera hobetzeko lortu beharreko lehentasunezko helburuak ezagutu dira.

➤ Habitatetarako

- i. Habitaten azalera handitzea (azalera hobetzea lehenesten bada: 10 puntu / azaleraren aldetik egoera onean bada: 8 puntu)
- ii. Egitura eta funtzioak berrezartzea (egitura lehengoratzeko lehenesten bada: 10 puntu / egitura eta funtzioak egoera onean badaude: 8 puntu)
- iii. Habitataren egungo hedadura zabaltzea. (6 puntu)
- iv. Egungo hedadura, egitura eta funtzioak edo azalera mantentzea. (2 puntu)

➤ Espezieentzat.

Esan behar da, jarduketa-eremuan espeziearen kudeaketa-behar zehatzei buruzko informazioa eskuragarri egon ez den kasuetan, beren habitataren berreskurapena lehenetsi zen.

- i. Populazioaren tamaina handitzea eta/edo dinamika hobetzea (tamaina handitzea lehenesten bada: 10 puntu / populazioaren tamaina kezkarria ez bada: 8 puntu)
- ii. Espeziearen habitata leheneratzea (habitata degradatuta bada: 10 puntu / habitataren egoera kezkarria ez bada: 8 puntu)
- iii. Espeziearen egungo hedadura hedatzea. (6 puntu)
- iv. Espeziearen egungo hedadura, populazioa eta/edo habitata mantentzea. (2 puntu)

E. Autosostengarritasuna

10 puntu. Biodibertsitatearekiko onura noiz lortzen den adierazten duen atala. Hau da, proiektuak autosostengarriztat hartu ziren baldin eta proiektuaren asmoa denboran iraungo zuen onura lortzea bazen, ia esku hartu gabe, mantentze-lanetarako izan ezik. Aitzitik, proiektu bat ez zen autosostengarriztat jotzen a) ingurumen-onura lortzeko aldizka esku hartu behar bazen, etorkizunean onura bere kabuz mantendu ahal izateko aurreikuspenik gabe, edo b) beharrezko mantentze-lanak garrantzitsuak eta denboran zehar jarraiak izan behar badira.

F. Konpromiso-maila

Tokiko erakundeek eta/edo erakunde-laguntzaileek hartutako konpromisotik biodibertsitateak lor dezakeen edo lortu duen onuraren balorazioa da, honako alderdi hauetan:

- A. Proiektu handiago baten parte izatea. Eskala handian jarduteagatik edo jarduketan eta lortu beharreko helburuen konplexutasun-mailagatik hainbat "faseetan" zatikatutako proiektuek balorazio positibo bat jaso zuten, gabe fase guztiek diru-laguntza jaso zuten edo ez kontuan hartu gabe. (5 puntu)
- B. Mantenimendu-/jarraipen-lanak egin dituzten, onurari eusteko eta gaur egun arte onura hori neurtzeko. Ingurumenarekiko konpromiso bat erakusten du, lan horiek puntualak edo aldizkakoak izan diren (behartutako beharren arabera baita hori) eta proiektua amaitu zenetik igarotako denbora alde batera utziz. (5 puntu)

G. Eraginkortasun ekonomikoa

Hemen kontuan hartu da toki-erakundeek proiektua gauzatzeko egiten zuten gastua ekonomikoa. Hektarea/luzera/unitate bakoitzeko kostuaren datua hartu da (jarduketan arabera), eta dagoeneko gauzatutako antzeko proiektuen kostuarekin edo jarduketa zehatz horietarako aurrekontu eskuragarriekin alderatu da.

Eraginkortasun-maila desberdinak honela katalogatu eta baloratu ziren:

- A. Oso eraginkorra (10 puntu): jarduera gehienetan inbertsio ekonomikoa espero zena izan da, eta, gainera, kostuak aurreztu dira boluntarior-tza-jardunaldiei esker, birpopulaketetarako landareak udal-mintegietatik lortu dira, etab.
- B. Eraginkorra (7 puntu): gauzatutako jarduketa-motarako inbertsio ekonomikoa espero zena izan da.
- C. Ez oso eraginkorra (0 puntu): inbertsio ekonomikoa oro har espero zena baino handiagoa izan da, edo, kostu orokorra eraginkortasuna adierazten badu ere, jarduketaren baterako justifikatu gabeko gailuak ikusi da.

H. Datu-basea

Ebaluazioei dagokien datu-basearen orrian, irizpide bakoitzarako informazioa bete da, dagokion puntuazioarekin batera, lehen azaldutakoaren arabera. Proiektu bakoitzaren azken balorazioa lortzeko, irizpide bakoitzarako lortutako puntuazio guztien batu egin dira soilik.

I. Banakako fitxak

Proiektu bakoitzarako ebaluazio-fitxa bat bete da (V. ERANSKINA), eta bertan ebaluazio-irizpide bakoitza deskribatzen da datu-basean baino xehetasun handiagoarekin. Horrela, erreferentziako dokumentu bat eskaintzen da, non, bista azkar batean, erraz egiazta daitezkeen azken ebaluazioa lortzeko jarraitu diren urratsak.

2.5 GERTAKARIAK ETA BEHAKETAK

Azterketa- eta balorazio-taldeak lan honetan antzeman duen gertakari ohikoena mota ezberdinetako dokumentazio-falta izan da.


Nolanahi ere, informazio-hutsune batzuk konpondu ezin izanaren arrazoi nagusia proiektu askok bukatu zirenetik pasatu den denbora izan da. Izan ere, denbora horren ondorioz, adibidez eta sarritan, bere garaian proiektuaren arduradun izana ziren pertsonak jada ez dira tokiko-erakundearentzat lanean ari, erretiroagatik edo osasun-arrazoiengatik. Informazio hori lortzeko zailtasuna areagotzen zen proiektuaren jarraipenaz eta mantentzeaz arduratzen den pertsonarik ez dagoen kasuetarako. Beste batzuetan, proiektuaren arduraduna aurkitu ahal izan den arren, igarotako denbora eta jarraipenik egin ez izatea izan dira oinarritzko informazioa edo informazio gehigarria lortzea oztopatu dutenak. Arazo hori kasu gehienetan konpondu da, baina horrek, aztertutako proiektu ugarien ondorioz, lan-prozesuaren arintasunean zenbait muga ekarri ditu.

Gehien falta izan den dokumentazioa eskabideari edo justifikazioari buruzkoa izan da, hau da, toki-erakundeek laguntza-aginduetan ezarritakoaren arabera nahitaez aurkeztu behar dutena. Era berean, erakunde eskatzaileek formularioak edo memoriak behar bezala bete ez dituztela detektatu da. Horrela, behin baino gehiagotan ezin izan zen jakin, elkarrizketa egin arte behintzat, zehazki zein izan ziren egindako jarduketak edo noiz gauzatu ziren. Dokumentu orokorrak izeneko karpetan, telefono-elkarrizketen ondoren aurkitutako edo izandako gertakarien edo arazoaren Excel orria erantsi da, erakunde eskatzailearen arabera antolatuta.

3 EMAITZEN AZTERKETA

Lan honetan, 2012tik 2019ra arte dirulaguntza jaso zuten 162 proiektuetatik 146 aztertu eta ebaluatu dira (horietako 4, oraindik luzapen-fasean). Ebaluatutako proiektuetatik 42 Araban gauzatu dira, 38 Bizkaian eta 68 Gipuzkoan. Horien guztien azken balorazioa eta ezaugarri nagusiak aztertu dira, gauzatutako proiektuak eta luzatutakoak bereizita, azken horien ebaluazioa ez baitago osorik.

Horien guztien artean, interesgarria da Naturagune Babestuetan osorik edo zati batean zein gauzatu diren eta beste espazio mota batzuetan zeintzuk egin diren aztertzea. 1. irudian ikus daitekeenez, NBetan jorratu dira jarduera gehienak, eta horrek ondorio batzuk iradokitzen ditu deialdia hobetzeko proposamenei dagokienez.



1. irudia. Naturgune babestuetan gauzatu diren edo gauzatuko diren proiektu ebaluatuen ehunekoa. Beste batzuk: beste naturgune babestu batzuk; Ez: beste espazio mota batzuk.



Ebaluazioaren ondoren lortutako emaitzen azterketak bi helburu nagusi ditu: batetik, orain arte gauzatutako proiektuen joera orokorrak deskribatzea; bestetik, joera horiek aztertzea eta alderatzea, EAEko biodibertsitatea hobetzera bideratutako dirulaguntzen hobekuntzak proposatzeko. Horretarako, hainbat urrats jarraitu dira, orain arte dirulaguntzei esker lortu dena ulertzen lagundu dutenak.


Lehenik eta behin, kategoria batzuk eraiki dira, proiektuen ebaluazioan lortutako azken balioaren arabera. Honako hauek dira:

1. taula. Proiektuei esleitutako kategoriak, lortutako azken balorazioaren arabera.

Kategoria	Puntuazio-tartea
Onura gabekoa	0
Oso baxua	1-44
Baxua	45-89
Ertaina	90-133
Altua	134-177
Oso altua	178-221


Ikusi daitekeenez, tartea 44 puntukoak dira, Onurarik Gabeko kategoriaren kasuan izan ezik; izan ere, kategoria honetan gaur egun ingurumen-onurarik aurkezten ez duten proiektuak sailkatu dira, hau da, ebaluazioan 0 puntu lortu dituztenak. Hori dela eta, azken horiei ez zaizkie ebaluazioaren gainerako irizpideak kalkulatu.

Proiektu bakoitzari kategoria bat esleitu ondoren, hurrengo urratsa proiektu gehien biltzen dituen identifikatzea izan zen (ikus 2. irudia).




2. irudia. Gauzatutako proiektuen banaketa lehen definitutako kategorietan zehar, ebaluazioko azken puntuazioen arabera.

probintzietan (3. irudia) eta denboran zehar (4. irudia), aipatu beharreko salbuespen batzuk izan ezik.



3. irudia. Lurralde Historikoaren eta kategoriaren arabera gauzatuak diren proiektuen banaketa.



4. irudia. Urteroko eta kategoria bakoitzeko gauzatuak diren proiektuen banaketa.

Grafikoen berresten dutenez, joera orokorra "Baxua" kategoriako puntuazio-tartean bukatu duten proiektuak gauzatea izan da. Hala ere, interesgarria da Gipuzkoako datuen banaketari erreparatzea, bai eta 2019ko deialdian behatzen den banaketari ere. Horrela, ikus daiteke "Ertaina" kategoriako proiektuak "Baxua" kategoriako antzeko proportzioan (3. irudia) edo proportzio handiagoan (4. irudia) daudela. Gainera, agerian geratzen da emaitza onenak eman dituzten proiektu gehienak ("Altua" eta "Oso Altua" kategoriak) batez ere Gipuzkoan eta 2019ko deialdian gauzatu direla.

Gipuzkoa izan da dirulaguntzen programa honetan hasieratik gehien parte hartu duen lurraldea, 2012-2019 aldian guztira 73 proiektu gauzatu baititu (bai ebalatuak bai ebalatu gabeak). Horrez gain, probintzia honetako hainbat udalerrik dirulaguntzen deialdi bat baino gehiagora aurkeztu direnez, ondoriozta daiteke puntuazio ona lortu duten proiektuen proportzio handia, ziurrenik, proiektu horiek hobeto diseinatu direlako izan dela, saiakuntza eta akats binomioaren ondorioz, denborarekin biodibertsitatea modu eraginkorrean hobetzeko metodologia aurkituz.

Nolanahi ere, Gipuzkoak dirulaguntza hauen deialdietan Bizkaia eta Araba baino gehiago parte hartu izatea bidesari bat izan du: 3. irudian ikusi daitekeenez, Gipuzkoa da, era berean, gaur egun ingurumen-onurarik aurkezten ez duten proiektu gehien dituen lurraldea (“Onurarik gabe” kategoria). 4. irudiari erreparatuta, ikusten da deialdi bakoitzetik igarotako denborak lotura estua duela “Onurarik Gabe” kategoriako proiektuen proportzioarekin. Horrenbestez, orokorrean ondorioztatzen da onurak denboran zehar mantendu ahal izateko jarraipen- eta mantentze-lanen protokolorik egon ez direla.


Beraz, ondoriozta daiteke dirulaguntzen deialdiaren helburuak betetzeko oso faktore garrantzitsuak direla esperientzian (norberarena edo besterena) oinarritutako diseinu on bat garatzea, gauzatutako lanak lurraldean eta denboran zehar jarraitzea eta epe luzerako onura bermatzea, jarraipen-protokolo bat aplikatuz.

Joera orokor horrek ematen duen informazioa, ordea, ez da nahikoa dirulaguntzen programa honen eraginkortasunari buruzko ondorio biribilak ateratzeko. Izan ere, lehen azaldu bezala, proiektuen sailkapena horien guztien gutxieneko eta gehieneko puntuazioetatik abiatuta eraikitako tartetan oinarritu da, proiektu bakoitzak puntuazio edo proiektu ideal bati dagokionez dituen balio erlatiboen ordez. Hau da, sailkapenaren helburua, azken finean, proiektuak antolatze beharrari erantzun dio, hurrengo azterketei begira informazioa erabilgarriagoa izan dadin.


Horrela, aukeratutako metodologiari esker balorazio ohikoenen ikuspegi orokorra lortu da, eta, hortik abiatuta, kategorien ezaugarri ohikoenak haien artean alderatu dira, ebaluazioan garrantzi gehien eta gutxien izan dutenak identifikatzeko. Honekin lortu nahi izan diren helburuak honako hauek dira:

1. Proiektu batean hobetu daitezkeen elementuak edo ezaugarriak deskribatzea.
2. Hobekuntza horiek aurrera eraman ahal izateko mugak aurkitzea.

Hurrengo urratsa kategoria bakoitzaren ezaugarri nagusiak deskribatzea izan da, eta horien artean ezberdintasun esanguratsuak aurkitzen saiatu gara, gauzatutako proiektu-motarekin hasita (5. eta 6. irudiak).



5. irudia. *Kategoria bakoitzean gauzatutako proiektuen ehunekoa (proiektu bakoitzaren guztizkoarekiko), proiektu-mota bakoitzari dagokionez.*




6. irudia. *Kategoria bakoitzean gauzatutako proiektuen ehunekoa (proiektu bakoitzaren guztizkoarekiko), proiektu mota bakoitzean (bi proiektu motaren konbinazioa).*

5 eta 6 irudiei dagokienez, aipagarriena “Habitaten berreskurapena: basoak” mota da, kategoria guztietan ohikoena baita, “Oso Baxua” kategorian izan ezik. Horrek adierazten du, beraz, proiektu mota hori dela, hain zuzen ere, jarduketan eta jarduketa-elementuen aldagarritasun handiena hartzen duena. Beraz, ez da balorazio on bat lortzeko erabakigarria den faktore bat.

Hala eta guztiz ere, aurreko grafikoek itxuraz garrantzi handikoen ezaugarriak proposatzera gonbidatzen gaituzte. Alde batetik, “Oso Baxua” kategoriako proiektu-mota ohikoenak bat datoz jarduera mugatuak (Kudeaketa-planak, Ibaien Garbiketa) eta interes mugatuko elementuen onura (Hiri-parkeetako jarduketak) dakarten proiektu-motekin. Bestalde, “Altua” eta “Oso Altua” kategorietako proiektu-moten banaketa elementu gehiagoren edo interesgarriagoen onura dakarten proiektuei dagokie gehienbat (Habitaten berreskurapena: hainbat motakoak), bai eta jarduketa gehiago gauzatzeari ere (proiektu-mota “bikoitzak”; 6. irudia). Horrela, bada, zehaztu ahal izan ziren itxuraz kategoria batean edo bestean bukatzeko pisurik handiena izan zezaketen ezaugarriak: onuradun izan ziren elementuen kopurua, horien legezko estatusa eta gauzatutako jarduketan mota eta kopurua.

Beraz, hurrengo urratsa kategorien arteko desberdintasun esanguratsuak (edo, gutxienez, joerak) bilatzea izan zen irizpide horietarako, kontserbazio-elementuekin hasita; zehazki, proiektu bakoitzak definitutako elementu-kopuruarekin (7. irudia).




7. irudia. Kontserbazio-elementuen kopuru desberdinetan jardun duten proiektuen ehunekoa (kategoria bakoitzaren guztizkoarekiko). OHARRA: "Zehaztu gabe" proiektuan kontserbazio-elementuak espezie-mailara arte definitu ez direnean edo elementu horiek mehatxatuak ez zeudenean egiten du erreferentzia, datu-basean talde-faunistikoa deskribatu den arren. "Ez baliozkoa", aldiz, batasunaren edo eskualdearen intereseko habitatak ez ziren elementuei egiten die erreferentzia.

7. irudiak nahiko argi erakusten du nolabaiteko ezberdintasuna dagoela elementu-onuradun kopuruan kategorien artean: zenbat eta kategoria hobea, orduan eta elementu-kopurua altuagoa. Beraz, irizpide honen garrantzia azpimarratzen da. Eraitza hau espero zen azken finean, ebaluazioan habitat bakoitzeko 40 puntu arte eta espezie bakoitzeko 30 puntu arte lortu baitaitezke, bakoitzarentzat honako irizpide hauek baloratzen baitira: kontserbazio-egoera, EAE osoan okupatutako azalera (habitatak bakarrik) eta proiektuarekin elementu bakoitzerako bete den helburua.

Hala eta guztiz ere, kategorien arteko azaleko alderaketa eginda ere, ondoriozta daiteke kategoria desberdinetako proiektu batzuek kontserbazio-elementu kopuru berari eragiten diotela, eta, beraz, elementu-kopurua ez dela irizpide erabakigarri bakarra. Izan ere, ondoriozta daiteke hainbat ezaugarri direla, elkarren artean hertsiki lotuak, biodibertsitatearen kontserbazioarekiko proiektu bat hobea egiten dutenak.

Beraz, aztertu beharreko hurrengo irizpidea proiektuek zein motatako elementutan jardun zuten izan zen.




8. irudia. Kontserbazio-elementu mota bakoitzean jardun duen proiektuen ehunekoa, kategoria bakoitzean (kategoria bakoitzaren guztizkoarekiko). OHARRA: “Zehaztu gabe” proiektuan kontserbazio-elementurik definitu ez direla esan nahi du, baina behintzat talde faunistikoa definitu bada, “Espezieak” gisa jaso da.

8. irudiak berriz ere kategorien arteko joeran bat erakusten du. Abiapuntutzat hartuta ebaluazio-metodologian habitatei espezieei baino balio handiagoa eman zaiela, eta normalean ekintza bakoitzak hainbat espezieengan eragina dutela (oso kasu espezifikoetan izan ezik), interesgarria da grafiko honek ematen dituen emaitzak 7. irudiko behaketekin konparatzea.

Lehenik eta behin, ondoriozta daiteke hainbat proiektuk kategoria baxu batean sailkatu direla horietako askok espezie batengan soilik lan egin dutelako. Puntuazio baxua lortzearen beste arrazoi bat fauna-taldeak bakarrik deskribatu direla izan daiteke (7. eta 8. irudietan “Zehaztu Gabeak”); izan ere, kasu hauetan kontserbazio-elementuen aldetik lortutako balioespenerako irizpide bakarra elementu horrentzat betetako helburuarena izan da. Bestalde, habitatek espezieak baino balio handiagoa dutenez, lehen aipatu den moduan, eta behin ikusita “Baxua” kategorian elementu-mota ohikoena “Habitatak” izan dela, ondoriozta daiteke elementu bakarrarengan eragin duten proiektuen sailkapenean (eta balioespenean, azken finean) irizpide hau erabakigarria izan dela.

Azkenik, grafikoen alderaketak aukera ematen du “Biak” mota eta elementu-kopuru gehiagorengan jardun duten proiektuen lotura zuzena antzemateko. Azken finean, gutxienez habitat batean eta espezie batean jardun dela esan nahi du “Biak” mota, eta, lehen esan bezala, nahiko erraza da espezie bati baino gehiagori mesede egitea jarduketa gehienekin, are gehiago habitat bati mesede egiteko badira, proiektuari geroz eta balio handiagoa emanez. Hori dela eta, ondorioztatzen da “Biak” motan jardun duten proiektuen elementu-kopurua proiektuaren diseinuaren zehaztasun-mailaren araberakoa dela. Aldi berean, xehetasun-maila horretan hainbat faktorek eragiten dute, hala nola, toki-erakundearen interes- edo sentsibilitate-maila, edo entitate hauek lan egingo duten elementuei buruzko eguneratutako informaziorik ez izatea.

Azkenik, beharrezkoa da jarduketa-elementuen kontserbazio-egoera aztertzea, proiektu batek biodibertsitateari egiten dion ekarpenean zerikusia duen edo ez zehazteko. Hori tokiko-erakunde batzuentzat muga handia izan daiteke, elementu mehatxatuenak kontserbatzeko behar diren baliabideak inbertsio handia suposatzen dutelako.




9. irudia. Kontserbazio-egoera bakoitza duen elementuen ehunekoa (kategoria bakoitzaren elementu totalarekiko). OHARRA: "Zehaztu gabe" proiektuan kontserbazio-elementuak espezie-mailara arte definitu ez direnean egiten du erreferentzia, datu-basean talde-faunistikoa deskribatu den arren.

9. irudiak kategoria ezberdinen artean elementuen kontserbazio-egoeran ezberdintasun esanguratsurik ez dagoela iradokitzen du; beraz, ondorioztatzen da irizpide hau ez dela erabakigarria proiektu batek balioespen askoz altuago edo askoz baxuago bat jasotzeko. Horrela, ikusten da "Baxua", "Ertaina", "Altua" eta "Oso Altua" kategorietan kontserbazio-egoera ohikoena Desegokia-Kontrakoa/Kaltebera izan dela, eta kontserbazio-egoera hobean eta txarrean dauden elementu oso gutxi daudela. Hala eta guztiz ere, deigarria da "Oso Baxua" kategoria, non "zehaztu gabe" eta "Ez baliozko" motako elementuak (babestu gabeko habitatak), bai eta "Aldeko" kontserbazio-egoeran dauden elementuak ohikoenak diren.

Azkenik, azken urratsa konfiguratu da, lehenik eta behin, mota bakoitzeko proiektuen banaketari buruzko oharra kontuan hartuta (5. eta 6. irudiak). Gogorarazteko: jarduera-helburuetan eta jarduketetan (kudeaketa-plana, hiri-parkeetako jarduketak, etab.) mugatutzat hartzen ziren motetan sailkatutako proiektuek puntuazio txikiagoa izaten zutela adierazi da. Hori dela eta, jarduketak aztertzea erabaki da; izan ere, hauexek dira helburuak lortzeko eta elementuen kontserbazio-egoera aldatzeko gaitasuna dutenak.

Irizpide honek ematen duen balioan gauzatutako jarduketan mota bai eta kopurua ere eragiten dutenez, ebaluazio-metodologiak jarduketa mota bakoitzari esleitzen dizkion balioen batukari bat egitea erabaki da proiektu bakoitzeko. Hau aztertzeko, 10. irudia eraiki da.



10. irudia. *Proiektu bakoitzeko jarduketan puntuazioaren baturatik lortutako balioen banaketa kuartiletan, kategoriaren arabera multzokatuta. Honako datu hauek nabarmentzen dira: batez bestekoa (\bar{x}), mediana («kutxa» barruko lerro horizontala), kuartiletatik kanpoko aldakortasuna (lerro bertikalak) eta balio atipikoak (lerro bertikaletatik kanpoko puntuak).*

Oro har, datuen aldakortasuna handia da kategoria bakoitzean, lerro bertikalek erakusten duten bezala, baina 10. Irudiak kuxekin kategoriaren arabeko balio arruntenek goranzko joera dutela erakusten du. Horrek aukera ematen du, beraz, proiektu bakoitzean gauzatutako jarduerak betetzen duten zeregina baieztatzeko.

Kategoria bakoitza gehien definitzen duten ezaugarriak deskribatu ondoren, edo behintzat balio baxuko proiektuetatik balio altukoetara ikusten den joera azpimarratu ondoren, kategoria bakoitzaren horien laburpena ematen da:

ONURARIK GABE

- Nahiz eta bere momentuan lortu izana, gaur egun **ingurumen-onurarik ez** dakarten proiektuak biltzen ditu kategoria honek.
- Ez dira aztertu.

OSO BAXUA

- Proiektu-moten aldakortasun handia. Horien artean, **ingurumen-balio baxua** dutenak: ibaien garbiketak, kudeaketa-planak edo hiri-parkeetan egindako jarduketak.
- Proiektu gehienek **zehaztu gabeko** (espezie-mailara arte, behintzat) eta **baliozkoak ez** diren elementuetan jardun dute.
- Elementu-motarik ohikoena "**Zehaztu gabea**" izan da. Proiektu-memorietan zehaztu den kasuak proportzio berdinean egin dute lan espezie eta habitaten gainean.
- Elementu gehienek kontserbazio-egoera ere **ez da zehaztu**. Zehaztu denean, antzeko proportzioetan aurkitu dira "Aldekoa", "Desegokia-Kontrakoa/Kaltebera", "Kontrakoa-Txarra/Arriskuan" eta "Ez baliozkoa" kontserbazio-egoerak.
- Jarduketan **balorazio orokorra** oso baxua da, batez beste balio handiko jarduera gutxi egin baitira.

BAXUA

- Proiektu moten **aldakortasuna** aurreko kategoriarena baino **handiagoa** da, kategoria honetan bildutako proiektu kopurua dela eta. Aldakortasun horretan, bai ingurumen-interes baxuko (azpiegituren sorrera/hobekuntza), bai ingurumen-interes altuko (hezeguneen edo sastrakadien berreskurapena) proiektu-motak daude.
- Proiektu hauen kontserbazio-elementu kopurua 1-4 artean izan da, baina hauetako %75a baino gehiagok **elementu bakarrean** jardun dute.
- Kontserbazio-elementu hori, gehienetan, **habitat** bat izan da. Proiektu gutxi batzuek "Ez baliozko" elementu bakarra deskribatu dute.
- Elementu genien kontserbazio-egoera "**Desegokia-Kontrakoa/Kaltebera**" izan da.
- Proiektu gehienek jarduketan **balioa** aurreko kategoriarena baino nabarmenki **handiagoa** da. Hala ere, emaitzen **aldakortasun handia** azpimarratu behar da.

ERTAINA

- Kategoria honen barruan aurreko kategorian baino proiektu gutxiago biltzen direnez, kategoria-moten **aniztasuna ere murriztu** egin da. Ingurumen-interes handiagoko proiektu-motak jasotzen dira hemen, baina gehienak **basoen** edo **habitat anitzen** berreskurapena dute helburu.
- Proiektu hauek 1etik 6 elementuetara arte jardun dute, baina ia **%80ak 2-3 kontserbazio-elementu** deskribatu dituzte.
- Proiektuen **%50a baino gehiago habitatetan edo espezieetan soilik** jardun dute, baina nabarmentzekoa da gainerakoek bi elementuetan egin dutela.
- Elementu gehienek kontserbazio-egoera “**Desegokia-Kontrakoa/Kaltebera**” izan da, baina azpimarratzekoa da “Kontrakoa-Txarra/Arriskuan” dauden elementuen proportzioa.
- Proiektu gehienek aurrera eramandako ekintzen balioa aurreko kategoriarenak baino **pixkat handiagoa** da, emaitzen **aldakortasun handiarekin** bada ere.

ALTUA


- Proiektu-motarik ohikoena “**Habitaten berreskurapena: basoak**” izan da. Hala ere, oso ohikoak izan dira ere hainbat elementuetan jardutea suposatzen duten motak: “Habitaten berreskurapena: hainbat motakoak” eta mota “bikoitzak”.
- Proiektuek 3-7 elementu arteren gainean jardun dute, baina gehienek **3-4 elementuengan** egin dute.
- Proiektu gehienek (ia %70a) bai **habitatei eta** bai **espezieei** ere egin diete mesede.
- Elementu horietatik, gehienak “**Desegokia-Kontrakoa/Kaltebera**” kontserbazio-egoeran daude.
- Proiektu gehienek jardueren balorazioa aurreko kategoriakoa baino handiagoa da, nahiz eta ezberdintasuna oso nabarmena ez izan.

OSO ALTUA


- Proiektu-motarik ohikoena “**Habitaten berreskurapena: basoak**” izan da.
- Proiektuek gutxienez 4 eta gehienez 8 elementuen gain ean jardun dute, baina proiektu gehienek **5-6** elementuen gainean egin dute.
- Kategoria honetako proiektu guztiek **habitat eta espezieetan** jardun dute.
- Elementu gehien kontserbazio-egoera “**Desegokia-Kontrakoa/Kaltebera**” izan da, eta ia ez dira “Kontrakoa-Txarra/Arriskuan” egoeran dauden elementurik definitu.
- Proiektu gehienek ekintzen balorazioa aurreko kategoriakoa baino **pixka bat handiagoa** da.

3.1 Luzatutako proiektuak


Nahiz eta egia izan luzatutako proiektuak urriak direla eta, ondorioz, ezin izan zaiela ebaluazio oso bat aplikatu, aurreko proiektuekin izandako urrats berberak jarraitu dira. Horrela, gauzatutako proiektuekin behatutako joera hauetan betetzen dela konprobatu nahi izan da, eskuragarri dauden datuen arabera, behintzat.




11. irudia. Luzatutako proiektuen banaketa, ebaluazioko azken balioespenen arabera eraikitako kategorietan.




12. irudia. Kontserbazio-elementuen kopuru desberdinetan jardun duten proiektu luzatuen ehunekoa, kategoria bakoitzean (kategoria bakoitzaren gutzitzaokarekiko).



13. irudia. Kontserbazio-elementu mota bakoitzean jardun duten luzatutako proiektuak, kategoria bakoitzean (kategoria bakoitzaren gutzitzaokarekiko).



14. irudia. Kontserbazio-egoera bakoitza duten elementuen ehunekoa, kategoria bakoitzean (kategoria bakoitzaren guztizkoarekiko).



15. irudia. Luzatutako proiektu bakoitzeko jarduketa guztien balioa. Puntu gorria: "Baxua" kategoriako proiektu luzatua. Puntu horiak: "Ertaina" kategoriako proiektu luzatuak. Puntu berdea: "Altua" kategoriako proiektu luzatua

Luzatutako proiektuei buruzko 11. eta 15. irudiek baieztatzen dute, nahiz eta gutxi izan, kontuan hartu beharreko irizpideak. Hala, datuek adierazten dute proiektu gehien biltzen dituzten kategoriak "Baxua" eta "Ertaina" direla. Bestalde, kategoria altuago bat a) kontserbazio-elementu kopuru handiago batekin b) elementu-mota gehiagorekin (aurrekoarekin hertsiki lotuta), c) elementu horien kontserbazio-egoera okerrago batekin eta d) jarduketa hobeeekin (motari eta kopuruari dagokienez) lotzen da.

Azken informazio horrek kategoria bakoitzari lotutako irizpideak hain modu bereizian erakusten baditu ere, ez da ahaztu behar biodibertsitateari ekarpen handiagoa egingo dion faktore erabakigarri bakarra ez dagoela (betiere proiektu honetarako diseinatutako ebaluazio-metodoaren

arabera), baizik eta hainbat direla, bakoitzak pisu ezberdinarekin baina haien artean estuki lotuta, kontuan hartu beharko diren irizpideak.

3.2 Ondorioak

Aurreko guztia ezarri ondoren, eta proiektu honen helburua ahaztu gabe, hau da, dirulaguntzen programa ebaluatzea, zenbait gai ondorioztatu daitezke:

Argi dago batez ere basoak berreskuratzeko proiektuak egin direla, segur aski honako arrazoi hauengatik: a) erakunde sustatzaileen sentsibilitateagatik, habitat mota hau degradatu egin dela ikusi baitute; b) habitat horien gertutasunagatik (habitat mehatxatuagoak badaude, baina egungo azalera eta azalera potentziala askoz ere murriztuagoa da); eta c) kontserbazio-egoera hobetzeko erraztasunagatik (basoko lanetan/azterlanetan espezializatutako enpresa asko daude, erakundeek jada esperientzia handia dute lan horiek egiten, etab.).

Dirulaguntzen programa honen onuradun izan diren proiektu gehienek elementu kopuru nahiko mugatu baten ganean jardun dute (egia da, lehen esan bezala, baso-habitatetan jarduteak, adibidez, elkarren artean erlazionatuta dauden hainbat elementuri mesede egin diezaiekeela). Horretarako arrazoiak izan daitezke, alde batetik, egokia izango litzatekeen baino proiektuen deskribapen lausoago bat egitea edo, bestetik, proiektuaren diseinuari ikuspegi holistiko bat aplikatu ahal izateko baliabide-inbertsio handirik egin ez izatea.

Bestalde, ezarrita geratu da joera bat dagoela gauzatutako jardueren balorazio handiago bat duten proiektuak kategoriatu batean sailkatzeko. Hala ere, aipatu behar da 20 puntuko puntuazioa nahikotzat ulertzen dela ondorioztatu ahal izateko ondo planifikatutako eta helburuak lortzeko eraginkorrak diren jarduerak gauzatu direla. Kontuan hartuta proiektu gehienek 20-35 puntu lortu dituztela irizpide honetan, esan daitezke tokiko erakundeek lan ona egin dutela arlo horretan.

Horrela, bada, esan daitezke dirulaguntza programa honen bidez 2012-2019 aldian gauzatutako proiektuak hobeto definitutako proiektuek izango luketen baino ekarpen gutxiago egin diotela biodibertsitateari, nahiz eta, berez, gauzatutako proiektuak egokiak izan bere asmoan, diseinuan eta betearazpenean.

4 HOBETZEKO PROPOSAMENAK

Biodibertsitatearen garapen jasangarria sustatzeko ekintzak egiten dituzten toki-erakundeentzako dirulaguntzak hobetzeko proposamen gehienak lantaldeak egindako lan honen azterketa-prozesutik, eta toki-erakundeek gehien adierazitako iradokizunetatik eratorzen dira.

4.1 Diruz lagundu daitezkeen ekintzen eta gastuen definizioa eta deskribapena hobetu eta/edo doitzeko proposamenak

- Proposatzen da argi eta garbi adieraztea fauna espezie exotiko inbaditzaileak erauzteko gastuak ez direla dirulaguntza hauekin finantziatuko, gaur egun ez baita horrela agertzen laguntzen aginduetan. Hala ere, interesgarria da inbaditzaileak izateko potentzialtasuna duten espezie exotikoen erauzketa finantzatzea, baldin eta egiaztatzen bada egin beharreko

jarduerak eraginkorrak izango direla espezie autoktonoen aurkako inpaktuen prebentziorako.

- Ibaien garbiketa puntualek ingurumenari egiten dioten ekarpen txikia dela eta, horrelako jarduerak eta proiektuak finantzatzen jarraituko ez dela islatzea iradokitzen da.

4.2 Proiektuak baloratzeko eta esleitzeko irizpideen definizioa hobetu eta/edo doitzeko proposamenak.

- Atal honetako lehen puntu azpimarragarria jarduketak egingo diren tokiari buruzkoa da. Honi dagokionez, gaur egun dirulaguntzen programak Naturgune Babestuak beste motako leku babestuak baina askoz hobeto baloratzen ditu; izan ere, bertan dauden elementu eta prozesu ekologikoengatik halakotzat aitortu badira ere, eta horien kontserbazioa interes komunekoa bada ere, kudeaketa udalaz gaindiko entitateei dagokie printzipioz. Beraz, espazio horien barruan eta kanpoan jarduten duten proiektuen artean lehenengo horien aldeko desoreka nabarmena dagoela argudiatu dute tokiko-erakundeek; izan ere, kasu batzuetan proiektu batek dirulaguntzarik gabe geratzeko irizpide bakarra hau izan da, nahiz eta proiektuak eremu horietan dauden baino habitat degradatuagoengan jardun edo premiazoak diren jarduerak proposatu. Beraz, erakundeentzat ez du zentzu handirik irizpide hau kontuan izatea proiektuen balioespenerako.

Hala, kontuan hartu da proiektuen erdia baino gehiagok Naturgune Babestuetan gauzatu direla, baina irizpide honek ez du loturarik biodibertsitateari ekarpen eraginkorrago bat egitearekin. Hori dela eta, proposatzen da, alde batetik, gunee babestu horietan eskumena duen organoak izatea bertan gauzatzen diren proiektuak finantzatzeko ardura duena, gaur egun udalak eta beste erakunde txiki batzuk baitira gunee horien kudeaketaren ardura hartzen hari direnak. Bestalde, agian egingarriagoa izan daitekeen beste proposamen bat, dirulaguntzen ildo beraren barruan, aurrekontu osoaren zati bat Naturgune Babestuetan gauzatzen diren proiektuetarako gordetzea da, eta gainontzekoa kanpoan jarduten duten proiektuetarako. Horrela, egungo egoera zuzentzea espero da, non, batzuetan, Naturgune Babesturik deklaratu ez den udalerrri batean gauzatutako proiektuak dirulaguntzarik ez duten jasotzen irizpide honengatik soilik.

- Hala ere, uste da zuzenean onuradun izango diren jarduketa-objektuen kontserbazio-egoerak bai izan behar duela bere garrantzia proiektuen balorazioan, baldin eta erakundeek ondo deskribatu badute jarduketa-eremuko elementuen benetako kontserbazio-estatusa, edo, gutxienez, informazio eguneratuenean oinarrituta dagoen estatusa. Horretarako, beharrezkoa izango da erakundeek behar bezala eta modu errealistan zein elementuren gainean jardungo duten eta non egingo duten deskribatzea; beraz, irizpide horien garrantzia azpimarratu behar da.
- Aurreko oharrei dagokienez, proiektuaren kalitate teknikoak hauen balorazioan pisu handiagoa izatea ere proposatzen da. Entregatu beharreko txostenak zehatzegiak izan beharrik gabe, memorien xehetasun-mailaren balioa azpimarratu behar da, honako alderdi hauetan: kokapena (eta zein "isolatuta" dagoen intereseko beste elementu batzuetatik); jarduketa-elementuak (eta haien eta ingurunearen arteko elkarreragina), emaitzen analisiak erakutsi duen garrantziagatik; eta gauzatuko diren jarduketak. Horrela, proiektu honen ebaluazio-metodologian islatu den bezala, hobeto baloratuko dira kontserbazio-elementu gehiagoren gainean jarduten duten proiektuak, habitatek puntuazio hobea izango dute espezieen gainetik, eta beren berezitasunaren eta/edo kontserbazio-egoeraren baloratuko da elementu bakoitza.

Proposatzen da, halaber, jarduera espezifikoen xede diren espezieak bakarrik hartzea onuragarritzat; izan ere, habitatak hobeto baloratzean, ebaluazio-metodologiak jada kontuan hartzen ari da onuradun izango den espezie-komunitatea. Bestalde, jarduerak ingurumen-intereseko beste espazio edo elementu batzuetatik isolatuta ez egiteak dakarren onura azpimarratu nahi da; horregatik, interesgarria litzateke konektibitate ekologikoa kontuan hartzen duten proiektuei mesede egitea.

Idea hau ez da proposatzen proiektu konplexuagoak eskatzeko, baizik eta erakundeei jarduketa-eremuan egon daitezkeen kontserbazio-elementuei arreta handiagoa jartzea iradokitzeke.

Azken finean, ulertzen da xehetasun-maila handiagoa alde aurreko azterlan eta interes batekin lotuta dagoela, eta horrek, ziurrenik, gerora antzeko lanak egitea ekarriko duela, edo, gutxienez, jarraipen- eta mantentze-lanak. Hori dela eta, jarraipen- eta mantentze-programa bat egitea derrigorrezkoa izatea ere proposatzen da, proiektuak lortutako helburuak denboran mantenduko direla bermatzeko nahikoa den xehetasun-maila batean.

- Azkenik, eta proiektuen memorien xehetasun-mailarekin lotuta, garrantzitsua da hainbat erakunderen arteko koordinazioa eskatzen duten proiektuen ahalegina baloratzea; izan ere, horrek espazio gehiago hartuko du eta, beraz, konektibitate ekologikoari mesede handiagoa egin diezaioke. Testuinguru horretan, hainbat fasetan dautzan proiektuak ere hobeto baloratuko lirateke, bertatik ingurumenaren hobekuntzan eta espazio- eta denbora- eskala handiago batean jarduteko inplikazio handiago bat ulertzen baita. Azken batean, iradokizuna ingurumena lehengoratzeko eta kontserbatzeko lanen jarraipena espazioan eta denboran zehar aurreikusten duten proiektuei balorazio gehigarria ematean datza.

4.3 Eskabide-fasean zein lanak justifikatzeko fasean aurkeztu beharreko dokumentazioaren definizioa hobetzeko eta/edo doitzeko proposamenak

- Adierazi beharreko punturik garrantzitsuena toki-erakundeei egindako elkarrizketetan askotan entzundakoa da: inpaktuak eta presioak murrizteko formularioan eskatzen den xehetasun-maila gehiegizkoa dela. Zehazki, toki-erakundeentzako arazo nagusia formulario honekin aurreko egoerari buruzko informazioa betetzea da; izan ere, erakunde horietako gehienek ez dituzte kuantifikazio eraginkor bat egiteko baliabiderik, eta, aurretiazko lan bat egin den kasuetan, laguntza tekniko gehieneko gastu batera mugatuta dago, edo gastua ez da dirulaguntza hauetan sartzen erakundearen baliabide propioekin egin bada. Hirugarren kasu bat dago: toki-erakundeek askotan kanpoko txosten teknikoak edo GeoEuskadi erabiltzen dute aipatutako formularioa betetzeko iturri gisa, eta, horrela, alde aurreko azterlan propio bat egiteko gastua aurrezten dute. Hala, iturri horietako informazioa eguneratuta ez dagoela jakinarazten dute.

Proposamena honetan datza: justifikazio-dokumentazioaren formularioan jasotzen den informazioa mugatzea, baina gaur egun eskatzen diren adierazle berberak erabiliz. Horrela, planifikatutakoaren (eskaeran jasotakoa) eta azkenean gauzatutakoaren arteko alderaketa egitea proposatzen da, formulario honi elementu bakoitzerako lortutako helburua gehituz (habitataren azalera handitzea, funtzioak eta egitura hobetzea, populazioa handitzea, etab.). Proposatzen da, halaber, justifikazio-memorian tokiko-erakundeek informazioa formularioan bezain zehatz aurkeztu ez arren, behintzat argi eta garbi adieraztea proiektuaren kokapena, kronograma, jarduketa zehatzak eta azkenean onuradun izan diren

elementuak. Horrez gain, justifikatu beharko da atal horietako edozeinetan izandako aldaketak eta lanen jarraipenaren ondorioak (egin badute) edo, behintzat, diseinatutako jarraipen-plana (nahitaezkoa izan behar du).

- Azken iruzkinetik abiatuta, eta epe luzera biodibertsitateari ekarpena egingo zaiola bermatzeko oinarritzotzat jotzen den puntua izanik, beharrezkotzat jotzen da erakunde onuradunei jarduketan jarraipen-txosten bat eskatzea, gehienez 2 urteko epean, onura denboran mantentzen dela ziurtatzeko (adibidez, landaketak aurrera ateratzen direla, urmaelek ura atxikitzen dutela eta fauna erakartzen dutela, etab.). Ez da beharrezkoa txostena justifikazio-memoriak bezain zehatza izatea; nahikoa izango litzateke oinarritzoko datu batzuekin, hala nola, berrikuspenaren uneko egoeraren deskribapena, egindako mantentze-lanak eta/edo aldaketak (halakorik balego) eta horren arrazoia, eta argazki-dosier bat.
- Azkenik, ziurtzat joz Natura 2000 neurrien tresnak aurrera egingo duela eta erabilera publikoa emango zaiola, iradokitzen da erakundeak izatea tresnan proiektuari buruzko informazioa igotzen dutenak edo, behintzat, justifikazio-dokumentazioan neurriak tresnara igotzeko inprimakia bidaltzea, PDF edo Excel formatuan. Bertan, tresnarako beharrezkoak edo oinarritzokoak ikusten diren atal guztiak jasoko dira, bakoitzerako aukeren zabalgarri bat aurkeztuko delarik (Excel formatuan).

4.4 Bestelakoak

Atal honetan, toki-erakundeek soilik diren iradokizunak jaso dira. Iradokizun horiek ez dute lotura zuzenik laguntza-programaren fase jakin batekin, baina nahikoak izan dira nabaritzen dituzten gabezia batzuk islatu nahi izateko.

- Alde batetik, ohar bat argitaratzea iradoki zen, non deialdien argitarapen-daten aurreikuspena agertzen den edo, behintzat, non aurreko deialdiekin alderatuta balorazio-irizpideetan egongo diren aldaketak jasotzen diren. Horrela, erakundeek adierazi dutenez, garatu nahi duten proiektua baztertua izango zen ala ez aurreikusi dezakete, edo emaitza ona lortzeko berriz aztertu behar dituzten elementuak hobeto definitu dezakete.
- Bestalde, beste erakunde batetik adierazi zen erabilgarria izango litzatekeela Eusko Jaurlaritzak laguntza teknikoko zerbitzuak eskaintzen baditu eskabide-fasean, telefono bidezko kontsulta errazetarako soilik, modu honetan langile tekniko espezializaturik ez duten erakundeek hainbat aholku izan dezaten proiektu, nahiz eta sinpleak izan, ahalik eta eraginkorrenak izateko behintzat.
- Azkenik, beste erakunde batek, proiektuen onurak denboran zehar mantenduko direla ziurtatzeko interesa duenez, horretarako zehazki laguntza-partida bat sortzea aipatu zuen.

5 I. ERANSKINA - DATU-BASEAREN EDUKIAK

Proiektuak deskribatzeko eta ebaluazioa egiteko datu garrantzitsuenak honako hauek izan dira:

- Esleipenaren kodea: Dirulaguntzaren deialdira aurkezteko erregistratu zenean proiektuari esleitutako kodea.
- Proiektuari esleitutako barne-kodea: erakunde eskatzailearen izena (batzuetan laburtuta) eta deialdiaren urtea.
- Deialdiaren urtea
- Proiektuaren izenburua
- Elkarrizketa: Entitate sustatzailearekin telefonoz egindako elkarrizketaren data eta, elkarrizketa egin ez bada, arrazoia.
- Landa-bisita: Landa-bisitaren data eta arrazoia, egin ez bada.
- Erremintan kargatzea: Natura 2000 neurriak tresnara irauli den, eta arrazoia, hala izan ez bada.
- Kartografia: kartografia digitala egin den eta arrazoia ez bada horrela izan.
- Erakunde eskatzailea: proiektua dirulaguntzen programara aurkeztu zuen toki-erakundea.
- Arduraduna: Proiektuaren egungo arduraduna edo, gutxienez, harremanetarako pertsona dela egiaztatu den pertsona, nahiz eta eskaera berak ez bete.
- Harremanetarako helbidea: Erakunde eskatzailearen posta-helbide ofiziala.
- Harremanetarako telefonoa: Harremanetarako telefono baieztatua arduradunarekin harremanetan jartzeko.
- Posta elektronikoa: Posta elektronikoa baieztatua arduradunarekin harremanetan jartzeko.
- Jardun den udalerrria(k): proiektuko jarduketak gauzatu diren udalerrria(k).
- Lurralde Historikoa: proiektuko jarduketak gauzatu diren Lurralde Historikoa.
- Erakunde laguntzailea(k): Proiektuan sail, laguntza tekniko edo lankidetzat puntual gisa parte hartu duten erakunde publiko edo pribatuak.
- Proiektuaren gauzatze-egoera: Amaituta/Prozesuan
- Hasiera-data eta amaiera-data: proiektua gauzatzeko gutxi gorabeherako datak.
- Proiektuaren kokapena: jarduera-eremuaren zentroidearen UTM koordenatuak, edo jarduera-eremu orokorrenak behintzat, eskala handiagoko proiektuen kasuan.
- Lurren titulartasuna: Publikoa/Pribatua
- Lurren erosketa: Bai (dirulaguntzarekin erosi dira)/Ez (jabeekin akordioa egon da). Lurren titulartasuna publikoa bada, hau hutsik geratuko da.
- Erositako lurren kostua/ha: tokiko erakundeak erositako lursailaren hektareako kostua. Kostua dirulaguntzari esker eskuratutako lursailari dagokie, eta kanpoan geratuko dira erakundearen baliabide propioekin aldeztatik erositakoak.
- Proiektu mota: Proiektuaren sailkapena, gauzatutako jarduketaren arabera.

- Jarduketan laburpena: termino generikoak, baina behar bezain deskriptiboak, proiektuan egindako jarduerak azkar jakin ahal izateko.
- Proiektuaren ondoriozko onura(k). Ea onurarik izan zen biodibertsitateerako exekuzio-unean, eta ea denboran iraun duen.
- Kontserbazio-elementua(k): Batasunaren eta Eskualdearen Intereseko Habitata soilik, eta EAEn “Arriskuan” eta “Kaltebera” gisa katalogatutako, Habitat Zuzentarauan II eta IV eranskinean eta jasotako eta Hegaztien Zuzentarauan I eranskinean jasotako espezieak.

Habitata:

- Kontserbazio-egoera orokorra: Aldekoa, Desegokia-Kontrakoa, Kontrakoa-Txarra, Ezezaguna
- Habitataren azalera osoa EAEn.

Espezieak:

- Kontserbazio-egoera orokorra (hegaztiak ez diren espezieak): Aldekoa, Desegoki-Kontrakoa, Desegoki-Txarra, Ezezaguna; edo Kaltebera, Arriskuan.
 - Populazio-joera (hegaztiak bakarrik): Hazkuntza, Gainbehera, Egonkorra, Zalantzakoa.
- Jarduketa motak: Proiektuen memoriak sinplifikatzen dira, jarduketak kategoria orokorrago batzuetan sailkatuta gera daitezten. Jarduera horiek nolabaiteko hierarkizazioa jasaten dute; izan ere, jarduera guztiek ez diote ekarpen bera egiten biodibertsitatearen kontserbazioari, nahiz eta guztiek lagundu ahal izan duten helburu bera lortzen.

- Jarduera zuzenak

■ Habitatetarako:

- Birpopulaketak: berreskuratu nahi den habitateko espezie tipikoen landaketak, normalean monolaborantzak edo flora exotiko inbaditzailea ezabatu ondoren.
- Espezie exotiko inbaditzaileen erauzketa: flora-espezieak zein fauna-espezieak.
- Egitura hobetzeko baso-lanak/larre-lanak: sastrakak kentzea, mozketak, soiltzea, enborren eraztunketak, egur hila mantentzea, etab.
- Aziendaren kudeaketa: sarbidea mugatzeko hesiak, abereen presentzia kontrolatzea, askak, etab.
- Hesiak eta sarbideak eraiki beste espezie eta bisitari batzuen sarrera mugatzeko.
- Bestelako azpiegitura: sartzeko pasabideak, etab.
- Hondakinen garbiketa: hiri-hondakin solidoak kentzea, bai ingurune urtarrean, bai ingurune lehortarrean.
- Bioingeniaritza: ezpondak egonkortzeko lanak.
- Lorezaintza-lanak: belar-sastrakak kentzeko jarduketak, landaketak, eta abar, hiriko lorategietan edo berdegune oso antropizatuetan.

■ Espezieentzat:

- Birpopulatzak/bersartzeak: espezieak landatzea edo askatzea beren habitat natural edo potentzian.

- Espezie exotiko inbaditzaileen erauzketa, mehatxatutako flora eta faunan zuzeneko eragina dutenak.
 - Babeslekuen eskaintza hobetzea: putzuak sortzea/konpontzea, habia-kaxak jartzea, harri-metaketak, etab.
 - Berroneratzeko hesia/Sarbideen kontrola, populazio interesgarriak babesteko.
 - Hilkortasuna murrizteko azpiegitura: hilkortasuna erabat hiri-azpiegituraren ondorio denean.
- Azterlanak eta inbentarioak
 - Kudeaketa Planak: horrelako txostenak egiteak eraginkortasun handiena bilatzen duen erakunde bat eskatzen du, eta, gainera, normalean, nolabaiteko hedadura geografikoa eta denborazkoa. Garrantzitsua izan arren (6. atalean baloratuko da), dokumentu horrek, zuzeneko jarduketak gauzatu ezean, ez luke inolako onurarik ekarriko jarduketaren helburuarentzat.
 - Inbentarioak eta kartografia: jarduketan aurretik egoeraren aurreikuspena egiteko, edo jarduketa horiek hainbat elementu adierazleren gainean duten eraginkortasunaren jarraipena egiteko.
 - Dibulgazio-lanak: liburuxkak, liburuak, diptikoak, txangoak, lan-boluntarioak, etab.
- Lortutako helburua (Natura 2000 neurrien fitxako helburuen sailkapena)
 - Espezieentzat:
 - Espezieak okupatutako egungo azalera hedatzea.
 - Populazioaren tamaina handitzea eta/edo dinamika hobetzea.
 - Espeziearen egungo azalera, populazioa eta/edo habitata mantentzea.
 - Espeziearen habitata leheneratzea.
 - Habitatetarako:
 - Habitataren egungo azalera zabaltzea.
 - Habitataren azalera handitzea.
 - Habitataren egungo azalera edo egitura eta funtzioak mantentzea.
 - Egitura eta funtzioak lehengoratztea, espezie tipikoen egoera barne.
 - Autosostengarritasuna: Proiektu autosostengarriztat hartuko da, baldin eta azken helburua denboran ia esku hartu gabe mantentzen den onura lortzea bada, mantentze-lanak kontuan hartu gabe.
 - Konpromiso-maila:
 - Proiektu handiago baten parte izatea. Eskala handian jarduteagatik edo jarduketan eta lortu beharreko helburuen konplexutasun-mailagatik hainbat "faseetan" zatikatutako proiektuek balorazio positibo bat jaso zuten, gabe fase guztiek dirulaguntza jaso zuten edo ez kontuan hartu gabe.
 - Mantenimendu-/jarraipen-lanak egin dituzten, onurari eusteko eta gaur egun arte onura hori neurtzeko.
 - Mantentze-lanen/jarraipenaren deskribapen laburra: termino generikoak erabiliz, baina behar bezain deskriptiboak izanez (adibidez: berragerraldiak ezabatzea, fauna-azterlanak, fototranpaketa bidezko jarraipena, etab.).
 - Proiektua gauzatzeko guztizko kostua: proiektua gauzatzeko guztizko kostua, toki-erakundeek emandako fakturen arabera.
 - Gauzatzeko finantzaketa propioa: erakundeak finantzatutako proiektuaren zenbatekoa.

- Diruz lagundutako finantzaketa: Eusko Jaurlaritzak finantzatutako proiektuaren zenbatekoa.
- Beste finantzaketa-lerro batzuk: Beste erakunde batzuek finantzatutako proiektuaren zenbatekoa.
- Eraginkortasun ekonomikoa: jarduketen kostua, oro har, jarduketa berberetarako edo antzekoetarako espero den gastu batetik zenbat desbideratzen den. Oso eraginkorra/Eraginkorra/Ez oso eraginkorra.
- Kontratatzeko/gauzatzeko metodologia: Laguntza teknikoa eta/edo proiektuaren exekuzioa bera egin duten enpresentzako kontratu mota
- AZKEN EBALUAZIOA: deskribatutako irizpide guztietan lortutako balioetatik eratorritakoa.

6 II. ERANSKINA - ELKARRIZKETAREN AKTAREN EREDUA

Toki erakundeei biodibertsitatearen garapen iraunkorrerako emandako
dirulaguntzen azterketa eta ebaluazioa
(2012-2019)

TELEFONO BIDEZKO ELKARRIZKETEN AKTA

- Proiektuari esleitutako kodea.
- Esleipen-kodea.
- Proiektuaren izena.
- Elkarrizketaren eguna eta ordua.
- Elkarrizketaren partehartzaileak.
- Tokiko erakundeak diruz lagundutako eta gauzatutako proiektuaren edo proiektuen funtsezko alderdiei buruzko laburpena. Proiektu/neurri bakoitzaren denbora-esparrua eta esparru geografikoa ondo deskribatuta eta definituta egongo dira atal honetan.
- Erakunde laguntzaileak kontratatzeke metodoa.
- Lanak egitean atzemandako indarguneak eta ahuleziak.
- Lanak egin ondoren hautemandako indarguneak eta ahuleziak.
- Dirulaguntzaren xede diren jardueren jarraipena, mantentzea edo hobekuntza jardueren definizioa, hala badagokio.
- Etorkizunerako planak.
- Ezagutza-hutsuneak.
- Dirulaguntzen programari buruzko iradokizunak.
- Gertakariak eta horien ebazpena, hala badagokio.

7

III. ERANSKINA - LANDAKO BISITAREN AKTAREN EREDUA

Toki erakundeei biodibertsitatearen garapen iraunkorrerako emandako
dirulaguntzen azterketa eta ebaluazioa

(2012-2019)

LANDAKO BISITAREN AKTA

- Proiektuari esleitutako kodea.
- Esleipen-kodea.
- Proiektuaren izena.
- Landa-bisitaren eguna eta ordua.
- Bisitaren arduradun teknikoa/k.
- Erakunde sustatzailearen teknikarien edo bestelakoen laguntza egon den edo ez.
- Laguntzen duen pertsonaren datuak (hala badagokio).
- Udalerria.
- Kokapena (lan-eremuko zentroidearen edo garatutako jardueren UTM koordinatuak).
- Mantentze-lanen eta jarraipenen urtea.
- Proiektuan gauzatutako neurria edo neurriak. Jarduketan deskribapen laburra.
- Eragindako azalera (ha): erreferentziako kartografiaren gaineko azterketa, hala badagokio (birpopulaketekin, leheneratzearekin eta abarrekin lotutako neurriak). Kartografia shape formatuan sortuko da, eskuragarri ez badago.
- Eragindako perimetroa (m): erreferentziazko kartografiaren gaineko azterketa, hala badagokio (perimetro-hesiak instalatzearekin lotutako neurriak, etab.).

- Garatutako neurrien egoera. Egindako mantentze-lanen eta/edo jarraipen-lanen deskribapena, hala badagokio.
- Lortutako helburuak (anfibioren presentzia eraikitako putzuetan, zur hila egotea eta egitura-konplexutasuna mozketen eta belar-sastrakak kentzearen ondoren, habia-kaxen erabilpena, etab.).
- Etorkizuneko aurreikuspenak: hemen adieraziko da zer kasutan egin behar diren mantentze-lanak, konponketak eta abar.
- Ezagutza-hutsuneak: proiektu bakoitzaren azterketan antzemandako eta landa-bisitan konpon daitezkeen ezagutza-gabeziak betetzen saiatuko gara.
- Proiektua aztertzeko eta ebaluatzeko interesgarriak izan daitezkeen beste ohar batzuk.
- Gertakariak eta horien ebazpena, hala badagokio.
- Argazkiak.